

**Usteak, Ustel!**

Argitu ditzagun zalantzak...

# Eskola, immigrazioa eta eskola- arrakasta

# 22.

---

***Eskola, immigrazioa eta eskola-arrakasta***

**Harkaitz—Zubiri Esnaola**

## **Ikasle etorkin kopuru handia duten eskolak kalitate txarreko hezkuntza izatera bideratuta al daude?**

Hospitalet de Llobregateko **Joaquim Ruyra eskolan, ikasleen % 90 baino gehiago etorkinak dira**, eta egoera sozioekonomiko ahulean bizi dira; baina **eskolako emaitza akademikoak Kataluniako batezbestekoaren gainetik daude**, eta, zenbait alderditan, Kataluniako elitekotzat jotzen diren eskolen gainetik ere bai. Ez da kasu isolatu bat. Hezkuntza-jarduerak gizartean eragina duten ebidentzia zientifikoetan oinarritzea da gakoa. Eskoletan egiten ditugun jarduerak ikerketa zientifikoetan oinarritzen badira, eta ikerketa horiek erakusten badute zer egin eskolak ondo funtziona dezan, orduan emaitzak onak izango dira, ikasleen ezaugarriak edozein direla ere.

## Zer itxaropen akademiko dira errealistek etorkinak diren ikasleentzat?

**Itxaropen handia izatea da errealistena ikasle mota guztientzat.** Eskolak gai dira hori bermatzeko, baldin eta ikerketa zientifikoek eraginkortzat jo dituzten hezkuntza-jardueretan oinarritzen badira. Horregatik, garrantzitsua da ikerketak bermatu ez dituen hezkuntza-ereduak ekiditea, hala nola irakasleak hitza monopolizatzen duen transmisio-eredua, non ikasleak hartzaile pasibo hutsak diren; bai eta eredu konstruktibista ere, non ikaskuntza autoaurkikuntzako banakako prozesutzat hartzen den, ikasleek aurretik duten ezagutzan oinarritzen dena. Bietan, ikasleek bakarka egiten dakitena hartzen da abiapuntutzat, eta, jakina, beren hizkuntza eta eskolako hizkuntza berdina ez denean, gauza asko daude bakarka lan egiten duten ikasleek egin ezin dituztenak (baina beste pertsona batzuen laguntzarekin egin ditzaketenak, hala nola beren gelakideekin, irakasleekin, beste heldu batzuekin...). Ikasleek egin ezin dutena abiapuntutzat hartuz gero, plangintza ikasleen gabezietan oinarritzen da. Hori da transmisio-ereduaren eta eredu konstruktibistaren kasua, eta, horregatik, saihestu egin beharko lirateke, ez baitute ondo funtzionatzen. Ebidentzia zientifikoek ez dute zalantzarako tarterik uzten. Ikerketak erakutsi du, ordea, ikasleek eskolako hizkuntza ezagutzen ez dutenean ere, beste ikaskuntza batzuk garatu dituztela eta, beraz, ikasle horiek ez direla hutsetik hasten. **Ikasleek laguntzarekin egin dezaketen horretan oinarritzen diren hezkuntza-ereduen arabera jardun beharko genuke, eta, beraz, berdintasunezko elkarrekintzak, lankidetzak, elkartasuna eta familien parte-hartzea sustatzen dituzten ereduen arabera, hezkuntza dialogikoaren ereduak kasu.** Erakutsi dute emaitza onak lortzeko eraginkorrak direla, hala akademikoak nola bizikidetzakoak, autoestimukoak eta gogobetetasunekoak.

## Jatorri soziokulturalak ikasle etorkinen ibilbidea baldintzatzen al du?

Hainbat herrialdetan egindako ikerketa askok erakutsi dute **ikasle mota guztiek ibilbide akademiko arrakastatsuak burutu ditzaketela, jatorri soziokulturala edozein izanda ere**. Faktore erabakigarriena eskola da. Zehatzago, eskolak ikasleei eskaintzen dizkien ikasketa-aukera errealak. Zenbait ikerketak erakusten dute jatorri soziokultural bereko ikasleek ibilbide akademiko oso desberdinak garatzen dituztela, eta hori joaten diren eskolen baitan dago. Nabarmentzekoa da, 1960ko hamarkadan Coleman txostena argitaratu zenetik, non esaten baitzen eskolak ezin duela desparekotasunak gainditzen lagundu, beste akademiko batzuek ildo berari jarraitu diotela. Jatorri soziokulturalaren eta emaitza akademikoen arteko korrelazioak ere nabarmendu dituzte zenbait ikerketak. Hala ere, garrantzitsua da gogoratzea, txostena argitaratu eta gutxira, aditu gaileen hainbat artikulua argitaratu zituztela *Harvard Educational Review* aldizkari entzutetsuan. Artikulu horiek erakusten zuten Coleman txostenak oinarritzko estatistika-arazoak zituela. Txostenaren adierazpen nagusiak defendaezinak zirela ere frogatzen zuten. Gainera, jatorri soziokulturala eta emaitza akademiakoak lotzen dituzten azterketek ez dute kontuan hartzen eskolak eskaintzen dituen aukerak direla giltzarria. Eskolak benetako aukerarik ematen ez duenean, beste faktore batzuk gailentzen dira. Baina **eskolak benetako aukerak eskaintzen ditunean, ikasle mota guztiek emaitza onak lortzen dituzte**.

## Eskolek eskaini al dezakete benetako hobekuntzarik ikasle etorkinen bizitzetan?

**Bai, eskolek ikasle etorkinei**, beste ikasle mota batzuei bezalaxe, **aukera-berdintasunetik emaitza-berdintasunera igarotzeko behar diren baliabideak, estrategiak eta dinamikak eskain diezazkiekete**; hau da, beste moduren batera nekez izan ditzaketen aukerak eskaintzen dizkiete. Eskola funtsezko erakundea da zentzu horretan. Eskolak ez badu egiten, litekeena da aukera horiek inoiz ez iristea ikasle etorkinei. Eskolak ikasleen bizitza hobetzeko aukera eman dezan, ezinbestekoa da ikastetxeak ikerketa zientifikoak ikasle guztientzat eraginkorrak direla bermatzen duen hezkuntza-jardueretan oinarritzea.

## Nola berma daiteke kalitatezko hezkuntza ikasle guztientzat, salbuespenik gabe?

Gaur egun, oraindik, ebidentzia zientifikoetan oinarritzen ez diren hezkuntza-jarduerak egiten dira, hala nola ikasleen mailaren araberako multzoak, «zirkulazio librea» deritzona edo ikaskuntza-estiloen teoriarik oinarritutako jarduerak, besteak beste. Ez dago horiek bermatzen dituen ebidentziarik. Era berean, ez dute kalitatezko hezkuntzan laguntzen zuzenean egoeraren diagnostikoa egiten saiatzen diren azterketek (planteatzen diren erronkei eraginkortasunez erantzuteko jarduera-ildoak eman gabe), ez eta ikasleak bakarka egiteko gai diren horietan oinarritutako hasierako ebaluazioa planteatzen dutenek ere (laguntzarekin egiteko gai diren horietan oinarritu beharrean). **Ikasle guztientzako (salbuespenik gabe) kalitatezko hezkuntza bermatzeko, beharrezkoa da hezkuntza-jarduerak gizartean eragina duten azterlan zientifikoetan oinarritzea**; hau da, ikasle guztientzako aukera errealak eskaintzeko eskolak nola eraldatu erakusten duten azterlanetan.

## Gomendagarria al da ikasleen maila akademikoaren arabeko taldeak egitea?

Ez da gomendagarria. **Maila akademikoaren arabeko taldekatzeek ohikoa baino homogeenagoak diren taldeetan biltzen dituzte ikasleak, eta kalte handiak sortzen dituzte**, bereziki, zailtasun gehiago dituzten ikasleengan: ezin dute gozatu aniztasun handiagoko testuinguruak eskaintzen dituen elkarlaneko interakzioen onurez, adiskidetasun- eta afektu-harremanak ezartzeko aukerak mugatzen dira, itxaropen akademikoak murrizten dira, autoestimua murrizten da, eta emaitza akademikoak okerragotzen dira. Erraztasun gehiago dituzten ikasleei ere kalte egiten die, ezin baitira baliatu aniztasunean aberatsa den testuinguru batek eskaintzen dituen aukerez.

## Aukera ona al dira ikasle heterogeneoak dituzten taldeak?

Talde heterogeneoak sortzea da aukerarik onena, baldin eta eskolako baliabide guztiek gela arrunt horietan esku hartzen badute; ikasgelan, hainbat irakasle lankidetzan aritzea da egokiena, esaterako, irakasle nagusiaz gain, PT irakaslea, errefortzuko irakaslea, hizkuntza-errefortzuko irakaslea... **Taldeak zenbat eta aniztasun gehiagokoak izan, orduan eta aberatsagoak izango dira taldean garatzen diren elkarrekintzak, eta, beraz, ikaskuntza akademikorako eta adiskidetasun- eta elkartasun-harremanak eraikitzeko aukera gehiago izango dituzte**. Horrek guztiak eskola-esperientzia askoz onuragarriagoa izatea ahalbidetuko die. Hala ere, talde heterogeneoak sortzea ezinbesteko baldintza da, baina ez da nahikoa; **izan ere, eskoletako dinamiketan lankidetzaren elkarrekintzak gailentzea ere beharrezkoa da**. Hau da, komeni da talde heterogeneoak egitea eta lankidetzaren elkarrekintzak sustatuko dituzten neurri eraginkorrak aktibatzea.

## Gai al da irakasle bakar bat ikasle etorkinei eraginkortasunez erantzuteko?

Irakasle bakar batek ikasgelan duen gaitasuna mugatua da. Ikerketak erakutsi du, eskolak beste profesionalei, familiei eta komunitateari, oro har, ateak irekiz gero, ordea, dinamika oso aberasgarriak sor daitezkeela. Era horretara, senitartekoek eta komunitateko kideek hezkuntza-prozesuan parte har dezakete, eta, horrela, emaitza bikainak lor daitezke maila akademikoan, eta, aldi berean, bizikidetzan nabarmen hobetu daiteke.

## Eraginkorra al da noizean behin ikasle etorkinak gela nagusitik ateratzea, talde txikiagoetan eskolak emateko?

Aukera txarra da. **Mailen araberako taldekatze mota bat da, eta ikasleei ikasteko aukerarik onenak kentzen dizkie.** Arlo akademiko jakin batzuk hobetzeko tratamendu indibidualizatuagoa eskaini beharra identifikatzen bada, gomendagarria da tratamendu indibidualizatuago hori ikasteko denboraren luzapen gisa planteatzea; hau da, ohiko ordutegitik kanpo, adibidez, eskolan tutoretzapeko liburutegiak antolatuz.

Komenigarriena da gabeziaren bat atzeman arte ez itxarotea eta ikaskuntza-denboraren luzapena ahalik eta lasterren abian jartzea, zailtasunak izan ditzaketen ikasleentzat prebentzio-errefortzu gisa. Ikasgela nagusiko irakasleei laguntzeko irakasle gehiago badaude, egokiena da beste langile horiek ikasgelan sartzea. Helburua ikasleek ikasgelan ahalik eta elkarreragin aberatsenak izatea da, eta, horretarako, ahalik eta talde heterogeneoenak sortu behar dira. Pertsona helduek modu erabakigarrian lagun dezakete ikasleen arteko lankidetzak-elkarrekintzak sustatzen, adibidez, talde interaktiboek bidez; hau da, gela bost, sei edo zazpi ikasleko taldetan banatuz, pertsona heldu batek gidatuta (irakasle bat nahiz boluntario bat izan daiteke). Horien lana ez da talde txikiei eskolak ematea, talde osoa lanean ari dela eta egin beharreko zereginetan elkarri laguntzen diotela bermatzea baizik. **Zailtasunak dituzten ikasleen ikaskuntzari euskarri bat ematea da helburua; horrek esan nahi du komeni dela aldi baterako laguntzak ematea bakarka egin ezin dituzten lanak egiteko.** Laguntza horren helburua da orain laguntzarekin egiten dituzten zeregin horiek etorkizunean modu autonomoan egin ahal izatea.

## Harrera-gelak aukera ona al dira?

Ez dira aukera ona. Eskola-ordutegian egiten dira, eta **ikasle etorkinak gainerako ikasleengandik bereizten dituzte**; horrela, **aukerarik onenak galtzen dituzte ikasketa akademikorako, gizarte-harremanak garatzeko eta autoestimua eraikitzeko**. Aukerarik onena da gela berean ahalik eta talde heterogeneoenak sortzea eta lankidetzarako elkarrekintza-dinamikak sortzea.

## Zer ekarpen egin dezakete familia etorkinek hezkuntza-prozesuan?

Familia etorkinek ekarpen handia egin diezaiokete beren seme-alaben eta gainerako ikasleen hezkuntza-prozesuari. Familien parte-hartze mota desberdinak identifikatu dira; ikerketak ondorioztatu duenez, **familiek, eskolari buruzko informazioan eta erabakietan parte hartzeaz gain, ikasleen hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten motakoak dira eraginkorrenak, eta, hori, nahi eta ahal duten neurrian, talde interaktiboetan eta solasaldi dialogikoetan parte hartuz egin dezakete**. Aukera ona da, halaber, eskoletatik familiartekoentzako prestakuntza eskaintzea, senitartekoen prestakuntzak eragin handia baitu ikasleengan.

## Ikasle etorkinek euskarazko eskolak jaso behar al dituzte?

**Bai. Ikasle etorkinei ez zaie kendu behar eskolak eskain ditzakeen aukerarako bat ere.** Eskolan euskara bezalako hizkuntza gutxitu bat ikas daiteke, eskolako testuingurua ona bada. Gainera, oinarrizko maila ez ezik, oso maila altua lor daiteke. Gakoa ahalik eta aniztasun handieneko taldea sortzea da, ikasi nahi den hizkuntzaren etengabeko elkarreraginak sortzeko. Ikasleek etengabe erabili beharko lukete hizkuntza, ez bakarrik hartzaile gisa, baita hiztun gisa ere.

## **Ikasle etorkinak dauden ikastetxeetan, maila jaitsi eta gatazkak areagotzen al dira?**

Ez ezinbestean. Hori gertatzen da ikastetxeek estrategia egokiak ezartzen ez badituzte; baina **ingurune egoki bat sortzen badugu, lankidetzaz-estrategiekin, ikaskuntza, emozio eta sentimendu onenen inguruko elkarrekintza aberatsekin, ez da maila jaisten, baizik eta bikaintasun-mailara irits daiteke**, Hospitalet de Llobregateko Joaquin Ruyra eskolan gertatzen den bezala. Institutuek Joaquim Ruyrako ikasleak nahi izaten dituzte; izan ere, badakite eskola horretako ikasleekin «maila igotzen dela». Are gehiago, ikasgeletan kultura- eta gizarte-aniztasunik ez badago, ezin da bikaintasun-mailara iritsi; Harvardeko Unibertsitatea bezalako ikastetxeek eraldatzea erabaki dute. Iraganean, ezau-garri soziokultural nahiko homogeneoak zituen unibertsitatea zen; baina, azken hamarkadetan, unibertsitateak aktiboki bilatzen ditu jatorri desberdineko ikasleak, ez bakarrik mota guztietako pertsoneri bertan ikasteko eskubidea zabal-tzeagatik, baizik eta jakin badakitelako beste ikasle horiek gabe ezin dituztela lortu nahi dituzten bikaintasun-helburuak. Horren ondorioz, aniztasuna nabaria da Harvarden, eta gero eta nabariagoa ari da izaten.

## Nola berma dezakegu eskola-giro on bat ikasle etorkin asko dituen eskola batean?

Edozein motatako eskoletan eraginkorrak diren ebidentzietan oinarritutako hezkuntza-jarduerak ezarri behar dira. **Eskolako giro ona hainbat modutan susta daiteke: ikaskuntza akademikoa modu eraginkorrean ziurtatzen duten hezkuntza-ekintzek eskolako giroa hobetzen laguntzen dute;** era berean, **oso onuragarriak dira pertsonen arteko harreman onak, adiskidetasuna eta maitasuna esplizituki lantzen dituzten ekintzak.** Halaber, beharrezkoa da 0 urte dituztenetik indarkeria eza sustatzen duten ekintzak aktibatzea, eta gatazken prebentzioa eta konponbidea berdintasunaren eta elkarrizketaren bidez lortzeko ohitura izatea. Gomendagarria da eskolatzearen hasieratik hastea, baina orain arte egin ez bada, lehenbailehen hastea komeni da, edozein adinetan emaitza positiboak izan baititzake.

## Zergatik da hain garrantzitsua eskola-giro on bat bermatzea ikasle etorkin asko dituen eskola batean?

Beste edozein eskolatan bezain garrantzitsua da. **Eskolako giro ona ikasleen garapen positiboarekin lotuta dago, bai maila akademikoan, bai gizarte-harremani, garapen emozionalari eta autoestimuari dagokienez.**

